

Xorroxin Irratiaren 35. urteurrena

XORROXIN IRRATIA :: 16/03/2016

Xorroxin Irratiak 35 urte beteko ditu larunbatean.

Ospatzeko, goizeko 11etatik aitzinet irratsaio berezi bat egingen dugu, entzuleen artean egindako inkesta, elkarrizketak, zuzeneko musika... ospatu gurekin Xorroxin Irratiaren 35. urteurrena.

XORROXIN IRRATIAREN IBILBIDEA-GAUR EGUNGO EGOERA

1981eko martxoaren 19an Xorroxin Irratia uhin bidez emititzen hasi zen, Erratzuko eskola zaharretik.

Larunbatean, **35 urte** beteko ditu.

Herriak sorturiko irratiak herriaren sostenguari esker jarraitzen du **Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortziriak, Urdazubi eta Zugarramurdiko** herritarren belarriak goxatzen. Urte guzti hauetan kontaezinak izan dira Xorroxin Irratiaren laguntzaile, kolaboratzaile, partehartzaileak...Herritarrak dira Xorroxin Irratiaren benetako hauspoa.

35 urte hauetan, aunitz aldatu da jendartea, eta aunitz aldatu da irratigintza oro har, baita Xorroxin Irratia ere. Erratzun hasi zuen bere ibilbidea eta egoítza desberdinak ezagutu ondotik, **Elizondon eta Lesakan** finkatuta **dituen estudioetatik** hedatzen du bere seinalea. **3 irрати-lizentzia** ere baditu, Elizondo, Bera eta Lesakan.

Lagun batzuk hasi ziren irratiarekin eta geroztik urtez-urte aunitz garatu da irratia. Profesionalizazio prozesuaren ondotik, 10 langile izatera ailegatu zen bere garai hoberenean (ekonomiari dagokionean bederen).

Gaur egun **7 langile** ari dira soldatapean, 4 lanaldi osoarekin eta 3 lanaldi murriztuarekin. Hauez gain, hamarnaka laguntzaile eta kolaboratzaile ditu.

35 urte hauetan Xorroxin Irratiak eskualdean entzuleendako erreferente izatea lortu du, horren erakusgarri, **2015ean Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak egindako audientzia neurketa.**

Honen arabera, gure eskualdean (22.500 biztanle ditu) 16 urtetik goitiko **6.680 entzule** ditu Xorroxin Irratiak.

Aldaketa aunitz jasan ditu irratia, egoítza aldaketak, profesionalizazioa, digitalizazioa,...garai zailak eta hobeak. Gaur egun, errate baterako, nahiz eta masa soziala baduen, nahiz eta entzulego fina izan, Xorroxin Irratia ekonomikoki ez dago bere onenean. Erakundeetatik jasotako dirulaguntzak eten edo nabarmen murriztu dira eta ondorioz, duela 4 urte langileek jasotzen zuten soldata berez murrizta, %15 gehiago murriztu zen. Hau ez zen nahikoa izan irratia bideragarritasuna bermatzeko, hortaz, aurtun 3. urtez jarraian Xorroxin Irratiko langileak enplegu erregulazio espedientepean daude.

Oztopoak eta zailtasunak gorabehera, Xorroxin Irratia ez da inoiz bakarrik egon. **Entzuleak, herritarrak beti laguntzeko prest agertu dira.**

Zailtasun ekonomikoak gainditze aldera, iaz laguntzaile kanpaina bat abiatu zuen irratia, *astean euro bat baino guttiago* izeneko kanpaina. Urtean 50 euro emateko prest agertu zen jende aunitz, nahiz eta oraindik gehiago behar dituen Xorroxin Irratiak eguneroko jarduna duintasunez garatzeko.

Nafarroa iparraldeko irla honetatik badu Xorroxin Irratiak Euskal Herriarekiko loturarik ere. **Arrosa sarean** partaide da, baita **Tokikomeko bazkide** ere. Bide horretan, etorkizunera begira (oraina ahaztu gabe) **erran.eus agerkari digitala** garatu du Xorroxin Irratiak Ttipi-ttapa aldizkariarekin batera.

Irratia on-line entzuteko aukera eta zintzilikatutako elkarrizketak entzuteko aukera eskaintzen du, bertzeak bertze. Berriki, gainera, **gailu mugikorretarako app-a eskuragarri dago** jada.

Dena den, negar egin baino, alai agertzeko arrazoiak baditu **Xorroxin Irratiak**. 35 urte. Bada zerbait. **Gazte segitzen du, aitzinet egiteko gogoz, ilusioz, eta indarrez dago.**

ZORIONAK Xorroxin Irratia!

ZORIONAK DENEI! LAGUNTZAILE, KOLABORATZAILE, ENTZULE...

#Xorroxin35

Xorroxin Irratia

xorroxin@gmail.com

948 581 226/948 581 374

<http://erran.eus/irratia/>

@xorroxinirratia

<https://www.facebook.com/xorroxin.irratia>

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/xorroxin-irratia-35-urteurrena